

ZAZPIAK BAT (SEIRAK BAT)

Aspaldion Euskalerrri osoa daukagu artega eta urduri eta artegasun eta urduritasun au bakea egiteko bidetik datoz. Zer da ba jazoten dana? Bildurra dautsagu bakeari? Ez orixe, jazoten dana beste au da: Orain-artean be sarritan izan dira bakearen aldiak eta beti amaitu dira txarto, ez ete da orain be olako zeozer jazoko? Adibide bat aitatzekotan, gogoratu daigun Bergara'ko besarkadea. Bakea egiteko izan zan, baiña zelako bakea izan zan? Ez jaku gaur be olako zerbait jazoko?

Euskaldunok erri bat gara eta or daukagu erri lez agertzen gaituan izkuntza, or gure oitura bereziak, or gure siniskerak eta izakerea, gure lan egiteko erea, gure biozkadak, gure sendia eta abar. Baiña, zori txarrez, urteetan eta gizaldietan atzerantza goaz. Egia da orain-arte bizirik urten garala, baiña lurralde asko galduta, euskerea bera baztertuta, euskaldunen kontzientzia bera be albo batera itzita, sarritan erria zati bi eginda ikusteak be miñik emoten ez dauskula...

Egia da beste au be: albo-erriak, batez be Frantziak eta España'k, ez dauskuela lagundu, geiago, kalte egin, baiña gure erria egoera larrian dago, ilteko arrisku bizian daukagu, gaur iñoz baiño geiago, gure arerioak indartsuak diralako.

Lentxuago Euskalerrriaren batasuna adierazteko "zazpiak bat" esaten gendun. Ori esatea España-aldeetik galazota geunkan, baiña iparraldera joaten giñanean idazki ori euken ikurriñak, txiskeruak eta olakoak ekarten genduzan. Zelan edo alan geure nortasunari eutsi egin bear geuntsan.

"Zazpiak bat" esalditxu oneri buruz gaur naparrak daukaguz aurka eta Naparroa (iparraldekoa ta egoaldekoa) bat dirala diñoe eta errialdeak ez dirala zazpi sei baiño. Ni ez naz asarretuko naparrakaz orregaitik. Egia da. Errazoia dauke. Baiña sei ala zazpi larregi begiratu barik, begiratu daiogun "bat" berbeari. Au da benetako indarra izan bear dauan berbea.

Euskaldunak iñoz izan eta gara bat?

Ez. Zori txarrez edo zori onez, iñoz ez gara izan bat eta gaur be ez gara. Euskalerrrian errialdeak beti izan dabe nortasun aundia eta erri osoak ez dau iñoz izan batasunaren ezaugarriarik: Iñoz ez dogu euki Euskalerrri osoa batzen izan dauan agintaritza bakar bat. Eta orrelan, errialde bakoitza

bere lekuan dala, millak urteetan iraun dogu bizirik eta euskaldun berotasuna barruan daroagula.

Eskalerrriko erakundeak udala ta errialdea izan dira eta errialdeko batzarrak agintzaritza nagusia. Sei edo zazpi nagusi orrein artean izan dira artu-emonak, batez be estualdi batzutan, baiña ez iñoz errigintza-giroan batasunera eltzeko asmotan.

Baiña bear dau Euskalerrriak olako batasunik? Euskalerrriaren edestian ez dogu aurkitzen orantsura arte parlamenturik edo lendakaririk. Batzarrak eta Jauna, batez be Bizkaia'n. Eta orra sartzen zan gure nortasuna galtzeko bide izan ziran aide nagusiak, beti españatarrakaz artu-emon estuetan. Bear ete dau ba, Euskalerrriak batasun ori?

Gaur gauza eder lez begiratzen dogu olako etorkizuna: Sei edo zazpi eskualdeak alkartuta, goragokoa litzaken erakunde. Baiña ez da aitzu bearko garrantzi aundia daukenak etxeko jauna eta errietako ordezkariak dirala. Orreik dira lege-egille, orreitatik sortzen da agintaritza, orreitatik epaikaritza, buru jabetza osoa.

Oiñarri orren gaiñean sortu leikez eta sortu bearko dira goragoko erakundeak, Euskalerrri osoa dan lakoa munduaren aurrean agertuko daben agintariak.

OLAZAR'tar Martin'ek



BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ